

DURANGO KIROLAKen kidea zarenez, dei egiten dizut **Udaletxeko 2. Pisua, Multimedia aretoan** egingo den bilerara, datorren **Asteazkenean Otsailaren 14an, 17:00etan** lehenengo deialdian eta, hala badagokio, ordubete geroago, adierazitako orduan gehiengorik ez dagoelako (*Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Araudiaren 14.1 artikulua*).

GAI ZERRENDIA

1. Bidezkoa balitz, aurreko akta-ziriborroen onartzea. (2023-10-26; 2023-12-26 eta 2024-01-17).
2. Presidentearen zenbait ebazpenei buruzko kontu ematea.
3. Kudeaketa txostena (Urtarrila).
4. 2. eta 3. Loteei dagozkien kirol-zerbitzuen kontratuetan ezarritako betebeharrak partzialki ez betetzeagatik zigorrak ezartzeko erabakia.
5. Eskariak eta galderak.

Se le convoca a Vd., como miembro del Consejo Rector de **DURANGO KIROLAK**, a la reunión que se celebrará en la **Sala Multimedia, 2º piso del Ayuntamiento**, el próximo **Miércoles, día 14 de Febrero**, a las **17:00** horas en primera convocatoria y en segunda, si hubiera lugar, una hora después, al no concurrir mayoría a la hora señalada. (*Art. 14.1 del Reglamento de Organizaciones, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales*).

ORDEN DEL DÍA

1. Aprobación, si procede, del borrador de actas anteriores. (26-10-2023; 2023-12-26 y 17-01-2024).
2. Dación de cuentas de varias resoluciones del Presidente.
3. Informe de gestión (Enero).
4. Acuerdo de imposición de penalidades por incumplimiento parcial de las obligaciones establecidas en los contratos de servicios deportivos correspondientes a los Lotes 2 y 3.
5. Ruegos y preguntas.

Durangon, 2024ko Otsailaren 12

Presidentea / El Presidente
Durango, 12 de febrero de 2024

Mikel Ortega Maraño
Durango Kirolak-eko Lehendakaria
Presidente Durango Kirolak

Elektronikoki izenpeturiko agiria
Documento firmado electrónicamente

En Durango, 12 de Febrero de 2024

Idazkaria / La Secretaria





2024-02-14

2024ko OTSAILAREN 14an AKTA / JUNTA del 14 de FEBRERO de 2024

Presidentea / Presidente

Don Mikel Ortega Maraón Jauna (EAJ-PNV).

Batzarkideak / Asistentes

Doña Mireia Elkoriribe Zenikaonandia Andrea (EAJ-PNV).

Don Jon Sergio Atxotegi Jauna (EAJ-PNV).

Doña Ane Abanzabalegi Areitio Andrea (EH Bildu-Durango).

Don Iker Urkiza Quilez Jauna (EH Bildu-Durango).

Don Jose Angel Orbegoza Ercilla Jauna (DES-SVD).

Don Jorge Varela Dorrio Jauna (HE-ID).

Don Carlos David García Fernández Jauna (PP).

Presidente berak gonbidatuak / Invitados/as a instancias del Presidente

Don Asier Bikandi Elorriaga Jauna (Durangoko Udal-Erakunde Autonomoen Gerentea).

Idazkaria / Secretaria

Doña María Elexpe Arroyo Andrea.

Tokia: Udaletxeko 2. Solairuko batzar gela.

Izaera: Ohikoa.

Hasiera ordua: 17:00

Amaiera ordua: 18:00

Lugar: Sala de reuniones, 2 planta del Ayto.

Naturaleza: Ordinaria.

Hora de inicio: 17:00

Hora de finalización: 18:00

Batzordeko Presidenteak lehen deialdian batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertu dira:

Abierta la sesión por el Presidente de la Comisión en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del día y que son los siguientes:

2024-02-14

01. Bidezkoa balitz, aurreko akta-ziriborroen onartzea (2023-10-26, 26-12-2023 eta 2023-01-17).

Irakurri ondoren, aho batez onartu dira.

Batzordea jakinaren gainean dago.

02. Presidentearen zenbait ebazpenei buruzko kontu ematea.

- ✓ 2024-01-09ko ebazpena. **Seguridad incendios sercoin, S.A.U. (A48647291)**, enpresaren kontratazioa baimentzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2024-01-15eko ebazpena. **16/23 faktura erlazioa** ordainketa baimentzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2024-01-26ko ebazpena. Begiraleen greba dela-eta **diru-sarreraren itzulketa** onartzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2024-01-29ko ebazpena. **Urtarrilako nominaren** ordainketa baimentzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2024-01-30eko ebazpena. **Urtarrilako nominaren 2. ordainketa** baimentzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2024-01-31eko ebazpena. **Ordainketak eta AD eta AD/ faseko gastuak** baimentzea, xehetasunaren arabera.

01. Aprobación, si procede, del borrador de actas anteriores (26-10-2023, 26-12-2023 y 17-01-2023).

Una vez leídas, se aprueban por unanimidad.

La Junta Rectora se da por enterada.

02. Dación de cuentas de varias resoluciones del Presidente.

- ✓ Resolución de fecha 09-01-2024. Adjudicar la contratación de la empresa **Seguridad incendios sercoin, S.A.U. (A48647291)**, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 15-01-2024. Autorizar el pago de la **relación de facturas 16/23**, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 26-01-2024. Aprobar la **devolución de ingresos** con motivo de la huelga de monitores, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 29-01-2024. Autorizar el pago de la **nómina de Enero**, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 30-01-2024. Autorizar el **2º pago de la nómina de Enero**, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 31-01-2024. Autorizar los **pagos, gastos en fase AD y AD/**, según detalle.

2024-02-14

- ✓ 2024-01-31eko ebazpena. BEZari dagokion **ordainketa** onartzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2024-02-05eko ebazpena. **Ordainketak** onartzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2024-02-09ko ebazpena. **Tania Cifuentes Cano** andrearekin sinatutako kontratua suntsiarazteko prozedura hastea, xehetasunaren arabera.
- ✓ Resolución de fecha 31-01-2024. Aprobar el **pago** correspondiente al **IVA**, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 05-02-2024. Aprobar y hacer efectivos **pagos**, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 09-02-2024. Incoar procedimiento de resolución de contrato suscrito con **Doña Tania Cifuentes Cano**, según detalle.

Bikandi jaunak luze eta zabal azaldu du otsailaren 9ko ebazpenean zehaztutakoa: kontratuaren hasiera; esleipendunaren betebeharrak; lehenengo luzapena 2023ko maiatzaren 13tik 2024ko maiatzaren 12ra, eta taberna itxi izanaren jakinarazpena, 2023ko abenduaren 26koa (ahots-mezuaren bidez). Azaldu duenez, 2.912,28 euroak kalte-ordain gisa, maiatza arte ordaindu gabeko kanonaren eta alokairuen kontzeptuan zenbatetsitako zenbatekoaren batura dira.

Bere garaian jarritako fidantza (2.000,00 €) konfiskatuko da eta gainerako zenbatekoa erreklamatuko da kalte-galerengatik.

Kontratazio-arloak prozedura osoa kudeatuko du.

Urkiza jaunak galdetu du ea plegu berriarekin hasi den. Bikandi jaunak oraindik ez duela erantzun dio.

El Señor Bikandi explica ampliamente lo detallado en la resolución de fecha 9 de febrero: inicio del contrato; obligaciones de la persona adjudicataria; primera prórroga del 13 de mayo de 2023 al 12 de mayo de 2024 y comunicación del 26 de diciembre de 2023 (mediante mensaje de voz) del cierre del bar. Explica que los 2.912,28 € en concepto de indemnización, es la suma del canon pendiente hasta mayo más el importe estimado en concepto de alquileres.

Se procederá a incautar la fianza interpuesta en su día (2.000,00 €) y a reclamar la cantidad restante en concepto de daños y perjuicios.

El área de contratación gestionará el procedimiento completo.

El Señor Urkiza pregunta si se ha comenzado con el nuevo pliego. El Señor Bikandi le responde que aún no.



2024-02-14

IKEEei buruz jasotako txostenari dagokionez, galdetu du zergatik dauden erantzun gabeko batzuk.

Bikandi jaunak aztertuko ditu eta erantzuna emango dio.

Batzordea jakinaren gainean dago.

03. Kudeaketa-txostenak (Urtarrila).

Ortega jaunak bidalitako txostenaren datuak komentatu ditu.

Kirol zerbitzuen kontratu berriei dagokienez, Bikandi jaunak enpresa esleipendunekin egindako lehen bileraren berri eman du. Kontratuan ezarritako baldintzak betetzen dira, besteak beste, titulazioak ekartzea. "Ohitura" batzuk bideratu beharko dira, baina oso jarrera ona antzematen du, eta hasiera-hasieratik bi aldeek arteko komunikazioa oso arina izan da. Uste du horrek guztiak erakundearen irudia aldatzen lagunduko duela, azken gertaeren ondoren.

Batzordea jakinaren gainean dago.

04. 2. Eta 3. Loteei dagozkien kirol-zerbitzuen kontratuetan ezarritako betebeharrak partzialki ez betetzeagatik zigorrak ezartzeko erabakia.

Bikandi jaunak bi txosten horiek eta egindako kalkuluak azaldu ditu:

En relación al informe recibido sobre las SQRP's, pregunta por qué hay algunas sin responder.

El Señor Bikandi las revisará y le dará respuesta.

Junta Rectora se da por enterada.

03. Informe de gestión (Enero).

El Señor Ortega comenta los datos del informe recibido.

En relación a los nuevos contratos de servicios deportivos, el Señor Bikandi da cuenta de una primera reunión con las empresas adjudicatarias. Se van cumpliendo los requisitos establecidos en el contrato, entre otros, la aportación de titulaciones. Habrá que encauzar algunas 'costumbres', pero detecta una muy buena actitud por su parte y desde el primer momento se ha establecido una comunicación muy fluida por ambas partes. Considera que todo esto ayudará a cambiar la imagen del Organismo, tras los últimos acontecimientos.

La Junta Rectora se da por enterada.

04. Acuerdo de imposición de penalidades por incumplimiento parcial de las obligaciones establecidas en los contratos de servicios deportivos correspondientes a los Lotes 2 y 3.

El Señor Bikandi explica ambos informes y los cálculos realizados:

2024-02-14

✓ **3. lotea. Rocodromoa. Esleipenduna:** Sport studio servicios deportivos, S.L. Urtarrilaren 2an, rokodromo-zerbitzua eten zen, begirale titulararentzat ordezeko bat ez zegoelako. Proposatutako zigorra urtarileko fakturari dagokion zenbatekoaren % 5 da, hau da, 235,65 €. Zenbateko hori fakturatik kenduko da.

▪ **2. lotea. Jarduerak. Esleipenduna:** Bpxport XXI, S.L.U. Titularrak bi aldiz falta du bere lanpostuan (padel eta gap). Biak egiaztatuta ziren, eta horren ondorioz, erabiltzaileek ez zuten zerbitzurik jaso eta kexak sortzen zituzten. Zerbitzuaren enpresa esleipendunaren jakinarazpen ofizialik ez da jaso bi aldietako batean ere. Proposatutako zigorra azaroko fakturaren zenbatekoaren % 5 da. Likidatuta dagoenez, 235,40 €horiek behin betiko bermetik kenduko dira. Urtarrileko zigorra hilabete bereko fakturatik kenduko da.

Zenbatekoak kontuan hartuta, argi ikusten da ez dela kontu ekonomikoa. Zorrotz jokatu behar dugu eta kontratuetan eta legeetan ezarritakoa bete. Zigor biak betearazpenaren bidez kudeatuko dira.

Bi proposamenak bozkatu dira, eta aho batez onartu dira

Batzordea jakinaren gainean dago.

▪ **Lote 3. Rocodromo. Adjudicataria:** Sport studio servicios deportivos, S.L. 2 de Enero, se suspende el servicio de rocódromo, al no encontrarse una persona sustituta para la monitora titular. La penalización propuesta asciende al 5% del importe correspondiente a la factura del mes de enero, es decir 235,65 €. Esta cantidad se deducirá de factura.

▪ **Lote 2. Actividades. Adjudicataria:** Bpxport XXI, S.L.U. La persona titular falta a su puesto de trabajo en dos ocasiones (padel y gap), ambas verificadas, que derivaron en la no prestación de los servicios y la generación de quejas por parte de las personas usuarias. No se ha recibido comunicación oficial alguna por parte de la empresa adjudicataria del servicio, en ninguna de las dos ocasiones. La penalización propuesta asciende al 5% del importe de la factura del mes de noviembre. Al estar liquidada, los 235,40 € se deducirán de la garantía definitiva. La penalización correspondiente a enero, se deducirán de la factura del mismo mes.

Por los importes, se ve claramente que no es una cuestión económica. Debemos ser rigurosos y cumplir lo establecido en los contratos y en las leyes. Ambas penalizaciones se gestionarán vía ejecutiva.

Se procede a la votación de ambas propuestas, y se aprueban por unanimidad.

La Junta Rectora se da por enterada.

2024-02-14

05. Eskariak eta galderak

✓ **Zergatik ez zen langilerik egon Landako I harreraren, azaroaren 24an eta 30ean eta abenduaren beste egun batean?** Varela jaunak aurreko Batzarrean egindako galdera errepikatu du. Bikandi jaunak erantzuten dio:

Azaroan, Inza jaunak dagozkion ordezkapenak eskatu zituen arren, badirudi poltsan ez zegoela inor prest eta ez zirela bete. Ez genuen jakin, ez baikenuen egoera horren berri eman. Hala izan balitz, aparteko beste batzuetan bezala, Landako II harrerako langileekin beteko zatekeen.

Abenduan, ordu sindikalak "eman" ziren zuzenean, eta ez genuen jakin. Langileen arloari abisatu diogu. Ezin dira ofizioz onartu. Beti onartuko dira (edo ez), idatziz. Salbuespena izan da. Kasuen % 99,9tan, orduak behar bezala eskatzen dira (ataritik) eta oniritzia ematen zaie. Ez dakit zer gertatu den oraingoan.

Udalhitzei dagokienez, gehienak bideratuta eta onartuta daudela gaineratu du.

✓ **Izandako langile-arazoak ulertzen baditu ere, galdera hauek errepikatu ditu: nork ireki du instalazioa?, nork agindu du instalazioa irekitzea larrialdikasu baterako langile arduradunik gabe? eta noren erantzukizuna izango zen zerbait gertatuz gero?.** (Varela jauna). Instalazioa normaltasunez irekitzen da erreleboa etorriko dela pentsatuz.

05. Ruegos y preguntas.

✓ **¿Por qué no hubo personal en la recepción de Landako I, el 24 y 30 de noviembre y otro día de diciembre?.** El Señor Varela repite la pregunta que hizo en la pasada Junta. Le responde el Señor Bikandi:

En noviembre, a pesar de que el Señor Inza solicitó las correspondientes sustituciones, parece ser que en la bolsa no había personas disponibles y no se cubrieron. Tampoco nos enteramos, pues no se nos informó de dicha situación. De haber sido así, se hubiera cubierto como en otras ocasiones extraordinarias, con personal de la recepción de Landako II.

En diciembre, se 'dieron' directamente horas sindicales, y no nos enteramos. Ya hemos avisado al área de personal. No se pueden aprobar de oficio. Se aprobarán (o no), siempre por escrito. Ha sido una excepción. En el 99'9% de los casos, las horas se solicitan correctamente (por el portal) y se les da el visto bueno. No sé lo que ocurrió esta vez.

En relación a los udalhitzes, añade que en su mayoría están ya encauzados y aprobados.

✓ **Aunque entiende los problemas de personal habidos, se reitera en sus preguntas: ¿quién ha abierto la instalación?, ¿quién ha ordenado abrir la instalación sin personal responsable para un caso de emergencia? y ¿de quién hubiera sido la responsabilidad en caso de ocurrir algo?.** (Señor Varela). La instalación se abre con normalidad



2024-02-14

Egoeraren berri dudanean, 20:00ak aldera, instalazioa martxan dago (jarduerak, partidak...), ezin dut itxi. (Bikandi jauna).

Elkoroiribe andreak gogorarazi duenez, igande arratsalde batean, instalazioan DK-ko langilerik ez zegoenez, adinekoentzako dantza-monitorea arduratu zen, egun horretan ematen zen jarduera bakarra berea baitzen. Instalazioa irekitzeko/ixteko baino ez zuen eskatu, eta udaltzaingoa arduratu zen horretaz.

Baina kasu honetan (abendua 22an), instalazioa langile arduradunik gabe ireki zen. (Abanzabalegi Andrea).

Varela jaunak argi dauka, legez, prebentzio-langilerik gabe ezin dela instalazio bat ireki. Elkartek batek jarduera bat egin nahi badu eta jarduera horretako langilerik ez badago, arduradun bat izendatu behar du. Horregatik, DK-ko langileak jartzen hasi ziren, prebentzio-arduradun bat behar zelako.

Elkoroiribe andreak gogorarazi du instalazio bat jarduera jakin baterako irekitzeko/ixteko arrazoi nagusia instalazioei erabilera handiagoa ematea zela, betiere jarduera horren ardura zuen pertsona bat bazegoen. Hala adierazi zioten, eta berak konfiantza du kirol-teknikariaren eta adinekoen arloko teknikariaren irizpidean.

pensando que vendrá el relevo. Para cuando tengo conocimiento de la situación, sobre las 20:00 horas, la instalación está en activo (actividades, partidos....), no puedo cerrarla. (Señor Bikandi).

La Señora Elkoroiribe recuerda que un domingo por la tarde, al no haber personal de DK en la instalación, el monitor de bailes para las personas mayores, se hizo responsable de la misma, puesto que la única actividad que se impartía ese día, era la suya. Únicamente pidió que le abrieran/ cerraran la instalación, siendo la policía municipal la encargada de ello.

Pero en este caso (22 de diciembre), la instalación se abrió sin personal responsable. (Señora Abanzabalegi).

El Señor Varela tiene claro que, por Ley, sin personal de prevención no se puede abrir una instalación. Si una Asociación quiere hacer una actividad y no hay personal de la misma, debe designar un responsable. Por esa razón, se comenzó a poner personal de DK al ser necesario una persona responsable de prevención.

La Señora Elkoroiribe recuerda que el motivo principal de abrir/cerrar una instalación para una actividad determinada, era dar mayor uso a las instalaciones, siempre que hubiera una persona que se responsabilizara de dicha actividad. Así se lo indicaron y ella confía en el criterio del técnico deportivo como de la técnica del área de personas mayores.



2024-02-14

Varela jaunak ondorioztatu du kirol-teknikariak eman ziola oniritzia instalazio bat irekitzeko, bere langilerik gabe eta prebentzio-arduradunik gabe.

El Señor Varela deduce que fue el Técnico deportivo quien dio el visto bueno para la apertura de una instalación, sin personal propio y sin persona responsable de prevención.

Durango Kirolakek baimena ematen du beste arlo batzuetatik eskatzen diren ekitaldietarako kirol-instalazioak erabiltzeko, baina antolatzen duenak kudeatu behar du ekitaldia, eta haren arduradun egin. (Bikandi jauna).

Durango Kirolak autoriza la utilización de las instalaciones deportivas para los eventos que se soliciten desde otras áreas, pero quien organiza es quien debe gestionar dicho evento y hacerse responsable del mismo. (Señor Bikandi).

Durango Kirolak-eko langileekin instalazioak irekitzeko proposamena Inza jaunak egin zuen, baina jarduerak ugaritu zirenez, erakundeko giza baliabideak ez ziren nahikoak izan. (Elkoroiribe andrea).

La propuesta de abrir instalaciones con personal de Durango Kirolak partió del Señor Inza, pero el aumento de actividades hizo que los recursos humanos del organismo no fueran suficientes. (Señora Elkoroiribe).

Asmoa zen instalazio gehiago izatea herriarrei zerbitzuak zabaltzeko. (Abanzabalegi Andrea).

La intención era disponer de más instalaciones para ampliar servicios a la ciudadanía. (Señora Abanzabalegi).

Adinekoentzako dantza-jarduerari dagokionez, Inza jaunak, Larreategi andreak eta Ertzaintzak ontzat eman ondoren, jarduera instalazioan egin zitekeela pentsatu zen. (Elkoroiribe andrea).

En relación a la actividad de bailes para personas mayores, tras el visto de bueno del Señor Inza, de la Señora Larreategi y de la ertzantza, se consideró que era posible realizar la actividad en la instalación. (Señora Elkoroiribe).

Instalazioetan ekitaldiak antolatzen dira Durango Kirolak alde zuzenetik ezagutu gabe. Ez dakigu nork hartzen duen ez ekitaldiaren, ez aseguruaren ardura... Ezin diogu edonori giltzarik utzi. Gure langileak ezin dira libre egon bereak ez diren ordutegietan. Fidantzak konfiskatu behar ditugu, instalazioan izandako kalteengatik, guk antolatu ez ditugun gertaerengatik. Joko eta ikuskizunei buruzko Legea kontuan hartu gabe antolatu nahi dira

Se organizan eventos en las instalaciones sin conocimiento previo de Durango Kirolak. No sabemos quién se hace cargo ni del evento, ni del seguro... No podemos dejar llaves a cualquiera. Nuestro personal no puede estar disponible en horarios que no son los suyos. Debemos incautar fianzas, por daños en la instalación, de eventos que no hemos organizado nosotros. Se pretende organizar eventos sin tener en cuenta la Ley de juegos y

2024-02-14

ekitaldiak. (Bikandi jauna).

Varela jaunak errepikatu du Legeak eskatzen duela antolatzen den jarduera bakoitzean, Udalaren instalazio publiko batean, prebentzio-planaren arduradun bat egotea. Gehienetan, gure langileak daude. Gure ordutegitik kanpo, antolatzaileak prebentzio-plan horren arduradun bat aurkeztu eta izendatu behar du. Horrela ez bada, zerbait gertatuz gero, erantzukizuna Udalarena da.

Jarduteko protokolo bat egon behar da (idatziz), une jakin batean, ohiko ordutegitik kanpoko jardueretan, ardura hartzen duten udal-langileak izan daitezen. (Varela jauna).

✓ **Aldatu al da udal-zelaietan benjaminen futbol-partidetarako irizpidea? Alebinak ere baimenduta zeudela uste nuen.** (Varela jauna). Eskola-kirola lehenesten dugu ikastetxeetan. Hala ere, hutsunerik izanez gero, eskoletako taldeek dute lehentasuna. Kasu honetan, ez dakit zein ekipo eta data. (Bikandi jauna).

Bere garaian ezarritako irizpideak aipatu dituzte, eta Varela jaunak gaineratu du partida Arripausuetan izan dela joan den asteburuan.

✓ **Abanzabalegi andreak langileen egutegiekiko eta enpresa berriaren lanarekiko interesa agertu du.** Aste honetan bertan, horien lehen zirriborroa pasatu zaigu. Aldez aurretik aztertu behar ditugu, langileei proposamen bat egin ahal izateko. Oraingoz, behin-behineko egutegi

espectáculos. (Señor Bikandi).

El Señor Varela reitera que la Ley exige que en cada actividad que se organice, en una instalación pública del Ayuntamiento, debe haber un responsable del plan de prevención. En la mayoría de los casos, hay personal nuestro. Fuera de nuestro horario, el organizador debe presentar y nombrar una persona responsable de ese plan de prevención. De no ser así, en caso de que pase algo, la responsabilidad es del Ayuntamiento.

Debe haber un protocolo de actuación (por escrito) para que, en un momento dado, en actividades fuera del horario habitual, se cuente con personal municipal que se haga cargo. (Señor Varela).

✓ **¿Se ha cambiado el criterio para los partidos de fútbol de benjamines en campos municipales?. Pensaba que estaba permitido hasta alevines.** (Señor Varela). Priorizamos el deporte escolar en los colegios. No obstante, en caso de haber hueco, tienen prioridad los equipos de las escuelas. En este caso, desconozco qué equipo y la fecha. (Señor Bikandi).

Comentan los criterios marcados en su día y el Señor Varela añade que el partido ha sido en Arripausueta el pasado fin de semana.

✓ **La Señora Abanzabalegi se interesa por los calendarios del personal y la labor de la nueva empresa.** Esta misma semana, nos ha pasado un primer borrador de los mismos. Debemos estudiarlos previamente para poder pasar una propuesta al personal. De momento,

2024-02-14

bat daukagu apirilera arte. Giza baliabideen teknika berriari guztiaren berri eman diogu, azterketan eta egin beharreko gestioetan lagun diezagun. (Elkoroiribe andrea).

✓ **Aurreko Batzarrean zesta eta pilota taldeen egoeraz galdetu nuen. Mikelek esan zidan ikasten ari zela. Nola dago gaia? (egutegia, ordu gehiago saskirako). Akordiorik lortu al da? (Abanzabalegi andrea).** Ortega jaunak erantzun dio oraindik ez dagoela ezer zehatzik. Asmoa frontoi biak erabiltzea da, baina San Fauston, ezaugarriak direla eta, ezin da saskira jokatu.

Abanzabalegi andreak ez du ulertzen ezin denik erabili, zazpi urte inguruko umeez ari garenean. Helduen kasuan gertatzen dela ulertzen du.

Urkiza jaunak egutegia adinaren arabera banatzea proposatu du.

Bikandi jaunak gaineratu du oreka bilatu nahi dela bi taldeekin. Ortega jaunak proposamen bat dutela adierazi du eta Abanzabalegi andreak bidaltzeko eskatu dio.

✓ **Urkiza jaunak adierazi du batzarra ostiralean deitu behar zela, eta ez astelehenean.**

Presidenamaiera eman dio batzarrari, eta nik, batzordeko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

disponemos de un calendario provisional hasta Abril. Hemos dado cuenta de todo a la nueva técnica de recursos humanos, para que nos ayude en el estudio y gestiones a realizar. (Señora Elkoroiribe).

✓ **En la pasada Junta pregunté por la situación de los equipos de Cesta y Pelota. Mikel me comentó que se estaba estudiando. ¿Cómo está el tema? (calendario, más horas para Cesta). ¿Se ha llegado a algún acuerdo?.** (Señora Abanzabalegi). El Señor Ortega le responde que aún no hay nada concreto. La intención es utilizar ambos frontones, pero en San Fausto, por sus características, no se puede jugar a cesta.

La Señora Abanzabalegi no entiende que no pueda utilizarse, cuando hablamos de niños/niñas de unos siete años. Entiende que ocurra en el caso de personas adultas.






El Señor Urkiza propone distribuir el calendario, según las edades.

El Señor Bikandi añade que se busca un equilibrio con ambos equipos. El Señor Ortega indica que tienen una propuesta y la señora Abanzabalegi le pide que se la envíen.

✓ **El Señor Urkiza indica que la Junta debía haberse convocado el viernes y no el lunes.**

El Presidente da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta. De todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión, doy fe.

2024-02-14

ORTEGA MARAÑÓN, Mikel 	ELKOROIRIBE ZENIKAONANDIA, Mireia 	SERGIO ATXOTEGI, Jon 
ABANZABALEGI AREITIO, Ane 	URKIZA QUILEZ, Iker 	ORBEGOZO ERCILLA, Jose Angel 
VARELA DORRIO, Jorge 	GARCÍA FERNÁNDEZ, Carlos David 